



Nazioarteko ordezkaritza Osiñagan mugalariei esker ona adierazteko

Atzo iritsi zen Osiñagara Comete Sarea omentzeko ostiralean abiatu zen ibilaldia. Loidi pareko oroitarrian Hernaniko lau mugalariak omendu zituzten.

NAZIOARTEKO ordezkari-tza elkartu zen atzo Osiñaga auzoan, Loidi parean dagoen oroitarrian, hernaniar mugalariei omenaldia egiteko. Bertan ziren omenduen senide eta inguruko jendea, Comete eta ELMS elkarteko jendea eta urrutiko herrialdeetatik etorritako jendea.

Lau mugalari hernaniar

II Mundu Gerran naziengandik ihesi zijoazen makina bat iheslariri lagundu zieten mugalariek. Mugalari horien artean euskaldun asko zegoen, eta tartean lau hernaniar: Tomas Anabitarte, Martin Errazkin, Juan Manuel Larburu eta Florentino Goikoetxea. Ikerlariak diotenez, Goikoetxeak 200dik gora pilotu eta agente aliatu pasa zituen mugaren alde batetik bestera, Bidasoa ibaia zeharkatuz.

Gordon Mellor pilotua

Gordon Mellor pilotu britainiarra, Halifax multzoko kopilotoa zen. Naziak bere hegazkina bota eta ihesi zijo-



Lore eskaintza, ereserkia eta minutu bateko isilunea egin zuten mugalarien omenez atzo.

ala, ostera Londresera itzultzeko, muga gurutzatu behar izan zuen.

Florentino Goikoetxeak lagundu zion muga pasatzen, Bidasoa ibaia alderik alde zeharkatuz, eta besteak beste, Goikoetxeari esker, bere herri-ira bizirik itzuli zen. Hori dela eta, Gordon Mellor bere esker

ona adieraztera etortzen da urtero-urtero Osiñagara.

Ibilaldi-omenaldia

Garai hartan lagundu zuten mugalari eta laguntzaileak asko eta asko izan ziren; ibilaldi-omenaldia ostiralean hasi zen; geroztik kilometroak eta geldialdiak egin dituz-

te bidean, garai hartako pertsona eta lekuak gogoratzeko eta omentzeko.

Azkeneko geldialdia Osiñagan izan zen. Mugalarien omenezko koroa jarri zuten oroitarriaren parean, ereserkia bat jo eta minutu bateko isilunea egin zuten bertan bildutako pertsonen. ||

❖ ARTIXTEN TOPAKETA

Gaur bilera irekia

Urriaren 4an egingo den Artixten Topaketan parte hartu nahi duten guztientzat bilera irekia izango da gaur, Biteri kultur etxeko Sukaldea gelan, 19:00etan. Informazio gehiago: ixa74@hotmail.com edo 675 703 276 telefono zenbakira deituta. ||

❖ TTARLA DANTZA TALDEA

Izen ematea ostegun eta ostiralean

Ttaria dantza taldeak euskal dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen emateko ostegun edo ostiralean joan behar da Biteri kultur etxera, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. 5 urtetik gorako edonork eman dezake izena; mutilak animatu nahi dituzte bereziki. ||

❖ EMAKUME ZENTROA

Izen ematea gaurtik asteazkenera

Elkano kaleko emakumeen zentroko ikastaroetan gaurtik asteazkenera eman behar da izena. Ikastaroak urriaren 1ean hasiko dira. Besteak beste, *bolilloak*, gimnasia, pintura eta dekorazio ikastaroak izango dira. Izena emateko, Elkano kaleko 17garren zenbakian, 1 solairuan. Arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara. ||

❖ UDALA

Gaur parte hartze batzordea

Gaur parte hartze batzordea izango da, 19:00etan, Udaletxean. ||

❖ BITERI KULTUR ETXEA

Gaur helduentzako magia ikuskizuna

Gaur helduentzako magia ikuskizuna izango da, *Angel Magoaren* eskutik. Biteri kultur etxean, arratsaldeko 19:00etan. ||

Portuko plazak 50 urte beteko ditu

Portuko Ibarrolaburu plazak 50 urte beteko ditu aurten. Ospatzeko, herri bazkaria egingo dute urriaren 12an; txartelak salgai daude gaurtik aurrera.

PORTU auzoko Jabier Ibarrolaburu plazak 50 urte egingo ditu aurten. Hori ospatzeko, auzotarrek festa antolatu dute urriaren 12an, igande.

Bazkariko txartelak salgai

Urriaren 12an beraz, ekitaldi ugari izango dira Portuko plazan, besteak beste, herri bazkaria. Dagoeneko antolatzen hasiak dira eta txarte-

lak salgai izango dira gaurtik aurrera urriaren 7ra arte.

Txartelak erosteko Pedro Mari tabernara edo Agustinarren dendara jo behar da. Nahiduen guztia joan daiteke.

Meza eta musika

Bazkariak gain, bestelakoak ere izango dira, esate baterako, meza, Hernaniko Musika Bandaren emanaldia eta dantzaldia Etxabe Anaiekin. ||

Spinning

Iritsi da Spinning-erako ekipazioa berezia

AZKEN KILOMETROA

Marieluts, 8 (Latsunbeko rotondan)

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● *Egunez*: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● *Gauetz*: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Giro egonkorra eta atsegina. Eguzkiak bere lana txukun beteko duenez eta haizerik apenas ibiliko ez denez, temperaturak gorantz egingo du eta 22-23 °C-tik gora izango dira termometroak.

BIHAR Giro atsegina gailenduko da arratsaldera arte eta ilunabarrean lainoak ugari egingo dira. Beroenak 25 °C-ren bueltan izango dira. (euskaime)

'Aire garbia denontzat' lortzeko bideak jorratu

Eguneroko bizitzan automobila ahalik eta gutxien erabiltzen kontzientziatzeko 'Mugikortasun Iraunkorraren Astea' egingo da Hernanin.

HERRITARROK egunerokoa ahalik eta erosoena baina ahalik eta gutxien kutsatuz mugitzeko moduak ezagutu eta jorratzeko astea izango da Mugikortasun Iraunkorraren Astea, bihartik datorren astelehenera bitarte, Udalak antolatuta, 'Aire garbia denontzat' lelopean.

Hausnartzeko gaiak

Bihar bertan hitzaldia izango da Biterin, Hernani eta mugikortasunaren inguruan; besteak beste, herriari eragiten dioten kanpo eta barne faktoreak aztertuko dira, esate baterako, azpiegitura haundiak edota herriaren antolakuntza urbanistikoa.

Asteazkenean gaiaren inguruko ipuin kontaketa izan-

Mugikortasun iraunkorraren astea

Irailak 16, asteartea

-Hitzaldia: *Hernani eta mugikortasuna.* Pello Lozano eta Imanol Jimenez. 19:30etan, Biterin.

Irailak 17, asteazkena

-Ipuin kontaketa. 4-9 urte bitarteko umeentzat. 17:30etan, Biterin.
-Dokumentala: *Txitean-pitean.* 19:30etan, Biterin.

Irailak 18, osteguna

-Kale antzerkia. Iñaki Mataren antzezlan. 17:00etan, Urbieta kalean, azokan; 18:30etan, Plaza Berrin.
-Ikastaroa: *Automobilak eragin-kortasunez gidatzeko ikastaroa.* 16:00etatik 20:00etara, Biterin. Izen emateko: olat-z-u@hernani.net

Irailak 20, larunbata

-Hernanin patinez. Herrian ba-

rrena ibilbidea patinez. Plaza Berritik (Txantxangorri paretik), 11:00etan.

-Ginkana patinez. Atletismo pistetan, 12:00etan.

Irailak 21, igandea

-Hernanin bizikletaz. Herrian barrena ibilbidea bizikletaz. Plaza Berritik (Txantxangorri paretik), 09:30etan.

Irailak 22, astelehena

MUGIKORTASUN EGUNA

-Eskola Agenda21. Pleno berezia. Ikastetxeetako umeek egindako proposamenei erantzun die Udalak. 11:00etan, udaletxean.

-Haurrentzako jolasak. Urbieta kalean, 17:00etatik 19:00etara.

-Argazki lehiaketaren sari banaketa. Udaletxean, 19:00etan.

Udala patinak alokatuko dizkion zerbitzu bat bilatzen ari da, larunbatean jendeari dohainik uzteko.

go da umeentzat; iluntzean, *Txitean-pitean* dokumentala emango dute, herriko jende zahararekin eta ezinduen elkarteak kideekin grabatua besteak beste, mugitzeko dituzten arazoengatik.

Ostegunean Iñaki Matak

elbarriek kalean dituzten ezintasunei buruzko antzezlanak egingo du.

Automobila ondo erabili

Automobila eraginkortasunez erabiltzen ikasteko ikastaroa izango da ostegunean. Besteak beste, automobilaren erabilera nola murriztu eta kutsadura gutxitzeko automobila modu egokian erabiltzen ikasiko dute. 15 lagunekoa taldea izango da eta gaur bukatuko da izen

emateko epea.

Patina, bizikleta eta jolasa Larunbatean herrian barrena ibilbidea egingo dute patinez. Igandean ere, beste hainbeste egingo dute baina bizikletaz. Datorren astelehenean Mugikortasun Eguna izango da eta, besteak beste, Urbieta kalean ume jolasak egingo dira.

Bestalde, argazki lehiaketaren epea bihar arte luzatu dute. ||

KANTUZ MUSIKA ESKOLA

Izen ematea gaurtik aurrera

Kantuz Eskolako gitarra eskolatan izena eman nahi dutenek Udaletxeko bigarren solairura jo behar dute dute, gaurtik irailaren 26ra arte, goizeko 09:00etatik 13:00etara. Informazio gehiagorako deitu 943 33 70 25 zenbakira goizez, eta 943 33 32 12 zenbakira arratsaldean. ||

KARABEL AUZOA

Marrazki eta idazlan lehiaketako lanak

Karabel auzoan umeentzako marrazki eta idazlan lehiaketa antolatuta dute. Idazlanak euskeraz eta gazteleraz egin daitezke. Lanak auzo elkar-terera eraman behar dira gaurtik ostiralera bitarte, 19:00etatik 20:00etara. ||

gse
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54 - Faxa: 943 33 58 01
www.gseasesores.net

VGALDETXXO
Jatetxea

BAZKARIAK
ETA
AFARIAK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

Aseguruak **CATALANA OCCIDENTE**

Atzieta 30
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602

MENDIRIZ MENDI

Gaztetxoak Erniora igandean

Mendiriz Mendi elkarteak gaztetxoentzako mendi irteera antolatuta du iganderako, Ernio mendira (1.075 m). Goizeko 08:00etan abiatuko da taldea Atsegindegitik. Gaztetxoek 2 euro ordaindu behar dute eta helduek 5. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko, elkarteko bulegotik pasa behar da (Iturregi plaza, z/g) gaur, ostegun edo ostiralean, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Izena emateko epea ostiralean bukatuko da. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

MATIAS OLAIOLA ARTOLA
Herenegun hil zen Hernanin, 95 urte zituela

"Zure oroitzapena beti gure artean izango dugu"

Joxe, Maria, Mari Jose eta Ixiar

Hernanin, 2008ko irailaren 15ean

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Victor Hugo kalean. 2 logela, saloia, sukaldia, berriua eta altzariek (240.000 euro). Deitu: 639 054 565.

Etxea salgai Hernaniko kaxkoan (eraikin berria, 10 urte) + trasteroa. Deitu: 616 446 660 / 659 977 096

Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).

Gimnasia Kontziente bateratzailea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)

Gimnasia Oreatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurraren garapena osasuntsua eta ziorontsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaklibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta *Kuperros*. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta *"vacumterapia"*. Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejoa ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)